

Epizentroa

Nerea Loiola Pikaza



n a r r a t i b a •

erein

EPIZENTROA

Narratiba, 132

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2021eko maiatzean

Azala:

Erein

Azalaren irudia:

Maddi Zumalabe eta Jon Aranguren, Asteazkenak

Maketazioa:

Itxaropena

© Nerea Loiola Pikaza

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-600-9

L. G.: D 648/2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

Nerea Loiola Pikaza

EPIZENTROA



*Izioki-eneako lurrikara eragile txikiei;
eta ez hain txikiei.*

«Mendez mende, emakumeei nolabaiteko posesio
deabruzko bat iruditu zaizkie beren bulkada aktibo
sortzaileak; baina gizonek ere hein berean
identifikatu eta zigortu dituzte bulkada horiek
deabruzkoa balira bezala».

(Adrienne RICH, *Emakumeagandik jaiok*)
(Maialen Berasategiren itzulpena)

«Ene! –esan zuen gurdiaren gurpilean zihoan
euliak–. Hau hauts pila harrotzen dugu!».

(Carson McCULLERS, *Kafe tristearen balada*)
(Asun Garikanoren itzulpena)

CUISINE ET SANTÉ

I

Zenbatekoa espainolez eskatu dio taxi-gidariak, aurretik hitzik gurutzatu ez badute ere. Saioak dirua atera bitartean, pinu formako aire-gozagarriaren kulunka eten du gizonak. Taxiko atea itxi eta ondorengo asteetan bizileku izango duenari begira askatu du ile-mototsa. Cuisine et Santé. Etxe makrobiotiko bat?, marmarikatu zion Ainarari honek egonaldia proposatu zionean. Garbi jan, deskantsatu eta zure buruarekin konektatzeko aukera emango dizu. Ez zela joango esan zion, baina hantxe dago, U itxurako eraikin baten aurrean, bere adats gorrikkako korapilo bat atzamarrekin askatzen.

Eraikin multzoa hiru gorputz baldarki pilatuk osatzen dute. Zati bakoitzak ditu molde bateko teilatu-hegalak, leihoen arotzeria desberdinak, zein bere aldetik doazen hutsarteak, koloreak eta erritmoak, zeintzuek erabateko harmonia eza sortzen duten eta, agian, atalen arteko dialogo posibleak erakusten. Bi kolunpio daude eraikinak erdialdean gordetzen duen belardian, neskato bat gogo-hotzez din-danean. Dozena bat lagun ikusi ditu aspaldi batean zuriak izango ziren plastikozko mahai eta eserlekuetan sakabanaturik, batzuk irakurtzen, tertulia goxoan besteak; la-saitasuna darie.

Haiengana hurbiltzeko tentazioa izan du, pare bat pauso ere eman ditu norabide horretan atzamar artean kateatu zaizkion ileak lurrera erortzen uztean; baina, aski giharrrik ez eta *Recepció* esaten duen kartel zahar bati jarraiki zeharkatu du ate txuri bat.

Ateak, ordea, jantoki handi batera eraman du, ez harre-
ra-leku batera. Han ez inor.

Est-ce votre première fois?

Berealdiko sustoa eman dio eskua sorbaldan jarri dion ahotsak. Kopetako ileak alboratu, eta denboratxoa behar izan du ezustekoari aurre egin eta frantses herdoildua bizkortzeko. Agure zahar bat du solaskidea. Maximek –hala aurkeztu du bere burua– bideratu du harrera-lekura, aurretik Saioaren ustetan pertsonalegiak ziren pare bat galdera egin eta gero.

Harrera-lekua edo. Hamar minutu ere ez dira igaro iritsi denetik eta Saioa ulertu ezinik dabil nolatan egoten den Ainara, den zurrunarekin, hain gustura toki hartan. Gela txiki bat da harrera-lekua, biltegi edo trasteleku bat ere izan zitekeena, arroz integral zakuak, baskula handi bat, kontserban jarritako fruta ontzi ilarak, argazkiz estalitako hormak, liburuak non-nahi; eta, bazter batean, egurrezko idazmahai maiztua, koaderno, liburu eta orri solteez gainezka. Burutik pasatu zaio, akaso, ez duela Ainara uste bezain ongi ezagutzen, bera, Saioa, izan dela protagonista nagusia bien arteko laguntasun performancean; bere pozak ez ote diren beti ospakizun handiagotarako motibo eta ez ote dituzten bere tristurek biak neurri berean kolpatu. Ez da jabetzen jarrera hori hartu izanaz; beti hor egon izan balitz bezala da, bere izenean hautatua.

Komunik gabeko gela bat aukeratu zuen erreserba egin zuenean; zorrotzago begiratzen die orain gastuei, bizitzako beste etapa bati ekiteko lana utzi zuenetik. Baina etxe makrobiotikoaren ardura duen gizonak korridoreko komuna erakutsi dionean –eta sudurra hurbildu duenean– damutu egin da. Atsekabe sakon bat irribarre batekin nahastu zaio begitaratean. Ez da ausartu unean bertan gelaz aldatu nahi duela esaten; sukaldera itzuli arte itxaron eta mesede bat eskatzen ariko balitzaio mintzatu zaio, begiak apur bat kizkurturik.

Je voudrais une chambre avec salle de bains.

C'est bien labur eta irribarretsuz erantzun eta koaderno lodikote baten orriak aurrera eta atzera paseatzeari ekin dio gizonak.

Ez duzue kudeaketa informatizaturik?, galdetu dio ia.

À voir, esan du hark orri batean idatzitakoak hatz erakusleaz errepasatzen dituen bitartean, *désolé mais pas possible*.

D'accord, c'est bien. Sumindura aukeratu du Saioak; oso emozio sentigarria da, aterpe perfektua gehiegi lan egin nahi ez duen batentzat.

II

Afaltzeko ordua dela adierazten duen kanpaitxo. Liburua ohe gainean utzi eta nagiak atera ditu leiho ondoan. Ezkila-hotsari men eginez mezetara joaten diren eliztarren tankeran sartzen ari da jendea jantokira; erabateko baretasunean denak, hain txukun eta kontrolpean, elkarren artean nahasteko

baldintzaturiko gizarte-kide zentzudunak, drama guztiak barnean gordeko diren ostiral arratsalde honetan.

Elikadurak salbatuko zaituzte!

Kolunpioetako batean iltzatu du begirada, maizterrik gabe kulunkan, joan-etorri otzanean. Neumatiko zahar bat erabiliz egin zion osaba Albertok zabu bat. Intxaurrondo erraldoiaren adar batetik zintzilikatu zuten.

Zeruraino, osaba, zeruraino!

Zerua hegaztiena dun, Kukita! Hankak lurrean izan behar ditinagu beti, entzun?

Nik airean ditut, ba!

Hankak airean eta mingaina beti dantzan, mari-matraka galanta haiz hi... To zeruraino!

Ihes egin behar izan zuen osaba Albertok Saioak hamabi urte zeuzkanean. Zer gertatzen da sendatzen ez diren eta sekula sendatuko ez direla dakizun zauriekin? Pisu-kide bihurtzen direla, edo, kasurik onenetan, maskota. Kolunpioa txikitu zuen amorruren amorruez.

19:30ak. Afaldu nahi duenak ordu horretan egin behar omen du. Goizegi da, baina joan egingo da hala eta guztiz ere. Afaltzen duenetan hamaikak aldera ohi du, *CSI Miami*ren azken kapituluarekin batera eta *True Detective* jarri aurretik. Afaldu zuen batean joan zitzaion Ainara etxera abisatu gabe. Eskandalizatu egin zuen Saioaren itxura narrasak, Saioa baino are lorrinago zegoen etxeak eta esku artean zeukan aurrez prestatutako espageti japoniarren potoak. Ainararen erretolikari, Ez da hainbesterako esan zion Saioak sofatik, eta bereari eutsi; harik eta, erantzunean, Ainararen ahotik entzun zuen arte: Zakarrontzian beste lau espageti

poto daude, bada hainbesterako. Bere onetik irten zen. Zaborra arakatu didazu? Alde hemendik! Eta halaxe egin zuen Ainarak. Hurrengo goizean itzuli zen, ordea, goraino betetako hiru tuper eta etxe makrobiotikoaren esku-orriarekin.

Beste apopiloek egiten dutena imitatuz hartu du *self-service* erako afaria: ardo beltzaren koloreko zopa, porlanezko arroz integrala eta lurrazaletik desagertuzat jotzen zituen barazkiak. Ontziak eskuetan, bazter batean zutik geratu da besteak nola esertzen diren asmatzeko. Iruditu zaio nahieran aukeratzen dutela norbere lekua mahai luze horietan. Solasaldi behartu bati eusteko gogorik ez eta, egoerari iskin egiteko beranduegi izanik, afaltzera jaitsi izanaz damutu da. Goizeko gizona ikusi du halako batean, Maxime, eta haren begirada bilatu; aldamenetik burumakur pasatu zaio, eta zoko batean eseri da jateko ezer ez eta liburu bat esku artean. Zoparen ontziak hatz-mamiak erre dizkio. Euskaraz hizketan aditu dituen gizonezko baten eta bi haurren ondoan eseri da azkenean; dibortziatua, bere artean.

Haurren ama mahaian eseri denean kontrako eztarririk joan zaio zopa Saioari: garaia, sendoa, mantso begiratzen duten begi grisak, eta ile kizkurra; Inesen sekulako antza du. Hitz egiten hasi denean, ordea, berehala egin du alde bere bikotekide ohiaren mamuak jantokitik. Ahots zorrotza dauka Aliziak, bitxiki trauskila bere gorputz lirainarentzat; eta azkarregi hitz egiten du, esaldiko azkeneko hitza bi aldiz errepikatuz askotan.

Zerbait esatearren zopa gaziagia dagoela komentatu du Saioak, eta umeen aitak azaldu dio nahita egiten duten zerbait

dela, gorputzaren energiari orekatzen laguntzeko: jendea oso *Ying* dagoela eta gatzak *Yangizatu* egiten duela bat. Interesa antzestu du. Dena den, tertulia polita izan du azkenean, batez ere Aliziarekin, *True Detective* telesailaren gainekoa.

Seme txikiena jolasean ari zela erori egin delako eta besteak txizagura zuelako, bi gurasoak mahaitik aldendu dira une batez. Poltsikoak miatu ditu Saioak, gelan ahaztu du mugikorra. Jantokiaren panoramika azkar baten ostean, Maxime zaharrari erreparatu dio. Irakurtzen jarraitzen du, atearen eta beheko suaren arteko zokoan. Ez luke jakingo esaten gizona hirurogeita hamarretan edo laurogeietan dagoen. Gorputz ihar luzea du, esku eta oin handiak; argaltasunak gorputz-adarren tamaina anplifikatzen dio. Jantokiko gehientsuenak bezala, maiztutako arrokekin jantzita dago. Esango luke, hala ere, Maximen kasuan ez dela atsedeen-testuinguruak ekarritako zer bait; zaila egiten zaio eskale itxura hori gabe irudikatzea; jakin badaki kalean ikusita ez litzatekeela hurreratu ere egingo. Euli bat pausatu zaio buru gainean. Zakileko ileak ere hain zuriak izango al ditu? Soila ere izan daitekeela pentsatu du. Kolpetik, burua altxatu du Maximek Saioa dagoen lekurantz, beha zeukala nabaritu izan balu bezala; eta honek beste alde batera begiratu du derrepentean.

III

Afalostean *ying* eta *yangari* buruzko hitzaldi korapilatsu bat entzun du, ez gaia batere interesatzen zaiolako, ezpada beheratziatarako afalduta eta zeregin handirik gabe zegoelako.

Ondoren, *Anna Karenina* irakurtzen aritu da logelan. Ainarak gomendatu zion liburu bat eramateko eta, zalantzak jota, klasikoari heldu zion. Lotarako jarrera egokia aurkitu ezinik dabil; Tolstoiren hitzek atximur egiten diote. Ba zeukan ba nahikoa orkestra bere buruarekin. Maitatzaileak eta maitatuak. Inesak eta Saioak. Ia pertsona guztiek maitatzaile izan gura dute; nahiago dute maitatu maitatuak izatea baino. Maitatuaren lekua hartzea jasanezina da askorentzat, maitatzailearen nahien zerrendako lehen postuari eutsi beharra; nahiz eta jakin, berandu baino lehen, produktu erakargarriago batek aldaretik eraitsiko zaituela. Sarritan pentsatzen du estimulu bat besterik ez zela izan Inesek urteetan pilatutako maitasunarentzat.

Ohean egiten duen mugimendu bakoitzeko arnasa apur bat gehiago estutzen zaio. Burkoaren luzerak ohearen zabalaren erdia gainditzen du justu-justu eta mehea da oso. Eskuarekin kolpe batzuk eman dizkio, mikrouhinean berotzen diren hazi-zaku horiek etorri zaizkio gogora. Bada zerbait bere gogamenaren barrenean sosegua itoarazten diona. Aterabide bat baino ez zaio geratzen krisialdi bat izan nahi ez badu: masturbatzea.

Lehen laztanetan, Inesen mingaina irudikatu du bere klitoriarekin jolasean. Inesekin zebilenean, beste emakumezko batzuekin egiten zuen larrutan masturbatzen zenean; baina, bien arteko harremana bukatu zenetik, geroz eta maizago ekartzen du Ines. Jolas arriskutsua dela badauki, gehienetan negar saio batek jarraitzen baitio orgasmoari. Eguzkiaren ondorengo ekaitza. *Azken aldia* erabakitzen du orduan, baina berandu gabe heltzen da beste azkenaldi

bat. Taupadak bizkortu zaizkio. Hatzak nahi ditu barruan. Bat-batean, Inesen irudia galdu du eta Alizia agertu zaio. Begirada konplizea, alu bero eta bustian sartu dizkio atzamarrak sendo. Oharkabean harrapatu du irudiak eta gelditu ere egin da une batez. Baina bero dago. Gutxi falta zaio. Eta ze demontre. Mingainarekin, goxotasun oldarkorrez, bere klitoriaren jabe egin da Alizia eta atzamarrak barruan utzi ditu korritzen den bitartean, berari gustatzen zaion bezala.

Alua eta eskua lehortzera korridoreko komunera joan den bitartean, zortziko nota jarri dio orgasmoari. Buelta-koan, logelak desberdin hartzen du arnasa, aurkitu du leku bat burkoaren hazi artean eta Inesi mendekutxoa hartu diolakoan lokartu da.

IV

Ez dugu kaferik hemen; arroz krema dago hor, han misoa edo soyua... Zerbait bota nahiko bazenio, sukaldeko arduradunak lehor.

Ez dio antzeman berez den emakume mukerra edo kafearengatik galdetu diolako dagoen uzkur eta, urduri, irri-barre inozoz eman dizkio eskerrak. Zerbitzatu orduko sekulako atzerakoa eman dio arroz krema delako ahia likatsuak eta badaezpada miso eta soyurik bota gabe eraman du mahai huts batera. Ez dago txarra. Ezta ona ere.

Arroz krema hobetuko luketen osagaietan pentsatzen ari dela, Alizia ikusi du etortzen, seme txikiena besoetan.

Egun on. Kopetako ileak alboratu ditu Saioak.

Zure lehen aldia da?, galdetu dio Aliziak gosaria seinatuz, isekaz.

Errudun sentitu da, zer dabilen bera emakume heterosexual-bikotedunak ameskerietan lesbianizatzen. Mahaian eseri zaio Alizia berritsu asko eta hizketaldiari jarraitu ezinik dabil Saioa, ezin dituelako begiak haren eskuetatik apartatu. Luze eta delikatuak ditu, aihen-belarren antzeko. Konturatu da detaile bila dabilela, iruditegi erotikoari sinesgarritasuna emateko beharbada; eta sumatu du, halaber, agian ez dela hain errudun ere sentitzen.

Begira geratu zaio Alizia, erantzun baten zain bezala. Ez daki zer galdetu dion ere, mendiaz ari dela uste du eta *bai-bai* orokor batez erantzun dio, baina aurpegi keinu arraro samarra egin du parekoak eta, lotsaturik, kopetako ileak alboratu ditu berriro. Isiltasuna egin da, deserosoetakoa. Poz hartu du Aliziaren seme txikiaren negar-hotsa entzutean. Ihes egiteko unea; liburua hartu eta lorategiko banku batean jarri da.

Norbait eseri zaio ondoan. Burua biratu du Alizia izango delakoan eta ezustekoa hartu du Maxime ikustean. Zaharrak ez du atentzioa liburutik apartatu Saioaren mugimendua nabaritu arren. Haren liburuarekiko interesa piztu dio horrek. Zer irakurtzen ari den jakin nahi du, helduta daukan bezala ezin asmatu du, ordea. Begirada *Anna Kareninan* jarri du ostera, baina ez du irakurtzen jarraitu; begi-ertzetik zaintzen du Maxime, hark zirkinen bat egingo duen zain. Zaharrak ezer susmatu ez dezan bi orrialde pasatu behar izan ditu nahi duena lortu aurretik: *Homo Deus*. Eza-guna du, etxeko apaletan dauka. Hasi eta berehala utzi egin zuen, etorkizunak arnasa eteten dio, nahikoa lan egunean

bertan zer bazkalduko zuen erabakitzen. Agian, horregatik hasi da eroso sentitzen leku horretan, zer jango duten ere beste norbaitek erabakitzen duelako. Istantean, Alizia atera da jantokitik, eta liburuak eskaintzen dion ezkutalekutik zelatatu du. Semea besoetan duen arren arin-arin mugitzen da, ihiaren dotoreziaz.

Oraindik ez du nabaritu gustuko duzunik.

Liburua kolpean itxi eta salto txiki bat eman du aulkian. Begirada milimetro bat ere mugitu ez duen agureari ezer esan gabe jaiki, mototsa askatu eta logelara erretiratu da.

V

Makurtuta dago Maxime loretxo more baten aurrean. Haren ahoa mugitzen ikusten du Saioak, baina urrutiegi dago zer esaten duen entzun ahal izateko. Ez dute hitzik egin zaharrak nabarmenkeria hura bota zionetik. Badaramatza egun batzuk gizona zelatatzen, kolpea itzuli nahi dio. Behea jotzen hasia dago. Agure bat da, besterik ez. Beha egon zaio gosaltzen, bazkaltzen, afaltzen (gutxitan egiten duen arren), ikusi du jendearekin hizketan, umeekin xake jokoan, harrikoa egiten; eta bere senean dagoela dirudi gehienetan. Batzuetan, ordea, gauza estrainioak egiten ditu: korridoreko zutabe baten atzean ezkutatuta aurkitu zuen aurrekoan, aurpegia paretari so eta besoak gorputzari pega-pega jarrita, Hemen ez naute aurkituko esaka.

Eskuarekin loreari agur esan eta banku batean eseri da irakurtzen hasteko. Adi-adi begiratu dio Saioak, disimulurik

gabe orain. Zaharrak liburua zabaldu duenean *bai!* txiki bat atera zaio, altxatu eta aldamenera joan zaio. Azkenekoan Maximek egin zuena imitatuz, bere liburua ireki du eta hoge-i arnasketa sakon zenbatu ditu isiltasuna hautsi aurretik:

Lantzean leku batean zabaltzen duzu, itxurakeriatan ari zara.

Zaharra 1 - Saioa 1 hitzak dituen markagailu erraldoi bat irudikatu du eta irribarretxo bat oparitu dio bere buruari begirada liburutik besteratu gabe. Joan dira bi, hiru minutu eta Maximek ez du ezer egin, ez du ezer esan. Saioa ondoan izango ez balu bezala jarraitu du, irakurtzen. Entzun ote dion zalantza egiten hasia da, esaldia berriro errepikatu ala ez. Agure alu hau. Pixkanaka hustu zaio umorea, zulatutako puxikak nola.

Norbait hilko baduzu erabili pozoia, burdina artean ez amaitzeko modu bakarra da, esan dio bat-batean Maximek.

Ez dut inor hil nahi.

Erantzun izanaz damutu da esaldia amaitu aurretik. Tonu kezkatuan erantzun diolako. Zirin. Urtsu. Kalkulua egin duena da garaile, eta ez, dena eman duena. Bertatik alde egin nahi du, urrundu; baina zaharrak hizketan jarraitu du.

Polonio 210a da probatu ditudanetatik hilkorrena, zalantzarik gabe. Nahikoa da gramo baten milarena gizon bat akabatzeko...

Saioak begiak itsu begiratzen dio bere liburuari.

Polonio gramo bat Hiroshimako bonba bezain hilgarria da, baina ahaztu pozoia, tamalez, erabat ezinezkoa duzu hura eskuratzea.

Isiltzeko esan nahi dio. Ez. Dut. Inor. Hil. Nahi. Etenda sentitzen du eztarria. Ez du bertan egon nahi; eta, hala ere, geldirik geratu da. Kanpotik behatuta sortzen duten bikoa irudikatu duenean, banku hartan, pozoï eta heriotzez mintzaten, barre algara batek egin dio ihes. Absurdoagorik!

Azido prusikoa duzu beste aukera bat, kafetan edo tetan disolba dezakezu. Azkarregi eragiten du, ordea: ia ez zidan alde egiteko denborarik eman.

Liburuari adi jarraitu du Maximek, irakurtzen, edo irakurtzen ariko balitz bezala.

Saioak jantokira alde egin du, kanpoaldeari bizkarra emanetz zutik geratu eta, gauzak mahai gainean utzita, ilemototsa berregin. Kukicha te katilu beterekin, atearen eta beheko suaren arteko zokoan babestu da.

Anna Kareninaren paragrafo berbera hirugarrenez irakurri duenean, liburua itxi du eta mugikorra atera. Ingurua zaindu du bilaketa egin aurretik, lekukorik ez dela ziurtatzeko, artega eta lotsaz. Begiratu dituen web-orri guztietan esaten da Estatu Batuetako eta Errusiako zerbitzu sekretuek erabili izan dituztela pozoï horiek. Artikulu batek eman dio atentzioa: *Pozoia: emakume-arma, hiltzaile isila*. Hari horri tiraka iritsi da XIX. eta XX. mendeetan serieko hiltzaile izandako emakumeen zerrenda amaigabe batera: Anne Monoham, bi senar eta iloba bat, artsenikoa; Anjette Lyles, bi senar, amaginarreba eta alaba, artsenikoa; Belle Gunnes, berrogeita bederatzi biktima, hainbat senar, seme eta ezagun, estriknina; Ellen Etheridge, lau semeorde, artsenikoa; Lyda Catherine Ambrose, bost senar, artsenikoa; Mary Cowan, bi senar, hiru seme eta semeorde bat, artsenikoa; Nancy Doss,

bost senar, bi seme, bi biloba eta ama, artsenikoa... Maximek ez dio artsenikorik aipatu, femeninoegia agian zerbitzu sekretuentzat.

Pauso lasaian, eskuak patrikan, beiratera hurbildu da zaharraren bila. Lehengo lekuan jarraitzen du. Aukera horrek sortzen dion ikara, ikara baino askoz haratago joan da, eta argitasun atsegin moduko bat bihurtu da. Bat-batean, Maximek begirada ernea zuzendu dio, eta, ostera ere, hotzikara bat sentitu du Saioak gorputzean behera.

VI

Izerditan esnatu da goizaldeko hiruak aldera. Negarrez. Negar txiki bat, benetako negarraren ertzetatik oin-puntetan igarotzen dena, intziri diskretu bat agian. Ohean eseri eta eskuei erreparatu die. Dardarka dauzka. Odoletan zituen segundo batzuk lehenago. Etxe hartako sukaldaria akabatu berri du ametsetan, sukaldeko labanarik handienarekin. Atzetik, ezustean, hotz. Gorpua lurrera erori denean, ordea, ez du sukaldaria ikusi bertan, Saioa baizik; eta ohartu da labana hartu orduko bazekiela bere burua erailko zuela.

VII

Gosaldu ondoren ibilalditxo bat egiten hasi da goizero, herriera joan eta etorri, bost bat kilometro guztira. Erritmo bizian egiten du, egunsenti freskoetan ere jakaren beharrik

izan gabe. Ohi baino haize finagoa dabil gaur, ordea, ihintzez blaituta larre eta bideak; eta hotzak dago. Gelditu egin da une batez, besoak igurtzi eta atzera begiratu; herria gertuago egon eta bidezidorrean aurrera jarraitu du. Pausoa bizkortuz berotuko delakoan, arnasestuka igo du aldapa azkenerako.

Egun batzuk dira iritsi zenetik eta, Ainarak iragarri bezala, bere buruarekin konektatzen hasia da; kontua da, ez zaiola batere gustatu konexio horren beste muturrean aurkitu duen emakumea. Zintzilikario margul penagarria. Azken hamarkadako gaitzespen eta minak lehen aldiz ihes-balbula bat aurkitu nahian ari direla dirudi; inoiz esan gabekoak esan nahi dizkio bere buruari, baina esateko duena ikaragarria da, eta beldurra ematen dio. Madarikatu ditu Ainara, Ines eta etxe makrobiotikoa; eta, zenbat eta gertuago herri-
tik, orduan eta garbiago dauka kafe batekin hartuko diela guztiei mendeku. Eta baita croissant batekin ere.

Saioa!, entzun du kafetegi barrenera sartu aurretik. Aliziak, lo-erritual bihurtu zaizkion orgasmoak eragiten dizkion neskak, irribarretsu astintzen du besoa terrazako mahai bate-
tik. Irribarre ortopediko samarrarekin erantzun eta oraindik estututa dituen ukabilak lasaitu ditu. Bakarrik egoteko go-
goa dauka, bakarrik eta kafetegiaren epelean goxo.

Zu ere kafea hartzera, orduan?, galdetu dio Aliziak zer-
bitzariak katilu ketsua mahai gainean utzi bezain laster, uste
nuen ni nintzela etxe horretako pertsona normal bakarra!,
eta algara ozen batez eskua jarri dio sorbaldan Saioari.

Inhibiziorik gabeko Alizia arras polita iruditu zaio, eta atsegina izan nahi duen jendearentzat erreserbatutako irribar-
rea egin dio Saioak. Aliziak aitortu dio senarrari esan diola

umeentzako fruta pixka bat erostera zihoala, Erretxindu egingo da bestela, gehitu du begi-keinu batez, Zero-kafe egonaldia, nori okurritu zaio!? Kontatu dio, bide batez, Saioak kafeari lehen zurrupada eman aurretik, etxe makrobiotiko *gogaikarri hori* ez zaiola batere gustatzen, senarrarengatik joaten direla. Eta nabaritzen diola, berak ere ez duela gogoko, *ezta?* Zuzen dabilela erantzun dio, baina ez da hala. Hortaz ohar-tzeak sekulako bihotz-ikara eragin dio, egun gutxi batzuk gelditzen zaizkio bertan; eta ondoren, zer? Egunak daramatza sentsazio horrekin, mintz babesle baten barruan mugitzen delako sentsazioarekin, merkurio gisa flotatzen. Bere burua ikusi du *CSI Miami* eta fideo japoniar artean eta higuina eta bertigoa nagusitu zaizkio. Ia hasi zaió Aliziari hori guztia esaten, baina, honek, makrobiotikaren aurkako bere diskurtsoarekin jarraitzen du gogotik. Ez du solasaldiaren giroa aldatu nahi, ez du haren errukirik nahi, akabo tira-erotikoa, bestela.

Kirolik egiten al duzu?

Eee... beno, korrika egiten nuen lehen, erantzun dio Saioak, *lehen* gutxienez bi urte badirela adierazi gabe.

Ze ona! Ia gauero ateratzen naiz, zer iruditzen bihar elkarrekin egiten badugu?

Egiten badugu hori burutik baztertu nahian eman dio ezezkoa, ez duela aspaldi *egin* eta kirol oinetakorik ere ez duela ekarri. Baina temati jarraitu du Aliziak, Nik bi pare ekarri ditut, eta hanka-neurri bera dutela frogatu du oinari oin. Pentsatuko dut esan dionean egin du alde zuribide gisa erabiltzen duen fruta erostera. Buelakoan, post-it bat itsatsi du mahai gainean eta Saioak ulertu ez duen zerbait murmuratu ostean desagertu da.

Egoera modu objektiboan analizatzen saiatu da, bururaztzen zaizkion modu subjektibo guztietan Aliziak bere ohean bukatzen baitu. Behin eta berriz errepikatu ditu bere baitan ezinezkotasunaren mantrak: Bi umeren ama da. Ez da bolle-
ra. Ezkonduta dago. Bi umeren ama da... Papertxo horiko zenbakiak mugikorrean gordeta ekin dio egoitzarako bideari, urdaileko zentrifugazioa menderatu ezinik.

VIII

Bazkalorduan hiruzpalau aldiz egin du topo Aliziaren begiradarekin eta, zirrarak eramanda, mezu bat idatzi dio: ezer esan gabe bestearen pentsamenduan gorpuzten zaituen horietako bat. Siesta egin aurretik jaso du erantzuna: Saioa! Oso gustura egon naiz lehen. Errepikatuko dugu.

Nagiak atera eta komunera joan da hortzak garbitzera. Aurpegia ispilutik zentimetro gutxira jarri eta atzamarrez bekainak orraztu ondoren, mingaina atera dio parez pare duen neska irribarretsuari.

Talioa erabili beharko zenuke, errazena da manipulatzten.

Ez dira bost minutu Maximen ondoan eseri dela. Eskailera janzika jaitsi eta entretenigarria izan daitekeelakoan aldamenean jarri zaio banku batean liburu eskuan dagoen zaharrari. Alboan sumatzerako hasi zaio berriro ere pozoi kontuekin. Ez nuke inoiz inor hilko, esan nahi dio.

Beti bada ezabatu nahi genukeen norbait, aurreratu zaio zaharra.

Inesekin pentsatu du. Ezabatu egin nahiko luke benetan? Eta haren neska lagun berria. Agertu ez balitz. Orduan zer. Inesek sabelean daraman haurtxoa. Nola ausartu da.

Aurrez aurre dauka Maxime. Liburua itxi du eta gorputza pixka bat biratu Saioarengana. Barne-begirada aratza eskaintzen ari zaiola iruditu zaio eta garden mintzatu zaio, defentsa-mekanismo guztiak alde batera utzita.

Zergatik dakizu hainbeste pozoiei buruz?

Maximek esku bat pausatu du Saioaren belaun gainean eta buruen arteko distantzia murriztu du nabarmenki. Keinua ikusita, berak ere hurreratu du burua doi bat.

Galdera horri erantzungo banio, hil egin beharko zintuzket.

Isilune labur bati zaharraren algara ero burrunbatsuak jarraitu dio, eta ingurukoen arreta bereganatu. Disimulatzeko beharrak bultzatuta-edo barrez hasi da bera ere ohar-kabeen. Pitzatuta dago, joder. Hasieran irri bortxatua zena algara zintzo eta gozagarri bilakatu da, zerbait askatu zaio diafragmaren eta hesteen artean.

Maxime so duela nabaritu du atzera eta, malkoak lehortuta, keinua bueltatu dio irribarretsu. Agurea serio dago, ordea; suge begiez. Hotza sentitu du Saioak. Eta tristura. Isiltasuna da nagusi berriro ere, baina ez da lehengo isiltasun bera. Zauskada iheskor batek zeharkatu dio orduan gorputza: berarekin jolasean dabil Maxime. Iritsi bezain pronto, bere sentimendu-erruletaren jabe egin zen gizona eta dindili-dantzan darabil, distira eta itzalen arteko jolas ankerrean. Ikarratu egin da ulertu duenean bat-batean nabarmena egin zaion errealitatea aspalditik duela bere. Aitortu behar duelako:

eroso dago. Erosoa zaio nola sentitu behar duen besteek bideratzea, besteek erabakitzea. Hala, existitzera muga daiteke bera, bere buru kulunkariaren maizter izatera. Besoak zabaldu, eta, datorrenari zainetan txirikordatzen utzi. Eta hondoa jotzen badu, txirikordatutakoa askatu ezingo duen arren, ez du erruaren lasta bere gain hartu beharrik izaten. Lau egunez jarraian aurrez prestaturiko fideo japoniarrak jatearekin, kito.

Errugabe asko hil nituen; Estatu Batuetako gobernuko goi-karguei bizitza konplikatzen zion jendea: oinezko muturluzeak eta urdanga lotsagabeegiak gehienetan.

Liburuan finkatu ditu begiak Maximek. Beste algarabaten zain egon da Saioa, baina, etorri ez, eta bere liburua zabaldua zaharraren jarrera bera hartu du. Polizia-telesailen abstinentzia-sindromea baretzeko balioko ahal dio erro arraioak. Isilune labur amaigabe baten ondoren ekin dio agureak berriro, hurbildu egin zaio Saioa besoarekin besoa ukitu arte.

IX

Ni ere oso gustura egon naiz zurekin! Gabon! :-). Hamaika hizki konbinazio baztertu ondoren, gaueko hamaika eta erdiak aldera eman dio mezua bidaltzeko ikurrari.

Maximen kontuetan pentsatzen itxi ditu begiak. Gaixo omen dago, eta gordeta zeuzkan diru apurrak deskantsuetxekoei eman dizkiela dio, hil bitartean ohatze bat eta jana izatearen truke. Bere burua zaintzeko gaitasuna galduko balu, erresidentzia batera joango litzatekeela sinarazi bide

zioten; arazorik batere sortu ez zion kontua, seguru baitaki halakorik gertatu aurretik hilko dela, edo bere buruaz beste egingo duela bestela, Talio pixka bat kukicha tean eta aio pelayo!, azaldu dio begi-keinu bat eginez. Munizio guztia entregatu gabe hartu nuen erretiroa, eta klisk begiarekin berriro ere.

Lo hartu eta berehala mezu baten soinuak esnatu du.

Esna zaude?, galdetu dio Aliziak.

Irakurtzen.

Zerbait idazten ari dela ikusi du pantailan Saioak. Denboratxoa hartu du solaskideak eta testu luzea espero du.

Zer ari zara irakurtzen?

Zer ari zinen idazten? Zerbait ezabatu duzu azken mezua bidali aurretik. Ausart sentitu da pantailaren atzean, gelako bakardadearen babesean.

Aliziak ez du berehalakoan erantzun.

Garagardo bat eskaini behar nizun.

Orain?

Beranduegi?

Atzeko aparkalekuan bost minutu barru?

Azkar baina tentuz jantzi eta aurpegia freskatu du atera aurretik, bihotza eztarrian taupaka. Alizia zain dauka eskailera maila batean eserita, garagardo ireki berria eskuan.

Nondik atera dituzu?, galdetu dio eseri eta bere botilatxoa hartu duenean.

Esan nizun ez zela nire lehen aldia hemen.

Topa egin dute. Kostata sartu zaio lehen tragoa. Isilik geratu dira. Iluntasunarekin lehian, aparkaleku sarrerako kale-argi zaharkitu bat besterik ez.

Xelebrea zer da ba Maxime zahar hori.

Nor da Maxime, agurea?

Pitzatuta dago.

Lastima ematen du, aitonatxo bakartia. Beti bere xake jokaldiak gora eta peoi eta erregeak behera, jokatzeko lagunik ez, ordea.

Noiz arte egongo zarete hemen?, galdetu dio, pozoiena aipatu edo ez zalantzan.

Bihar bazkalostean joango gara. Azkenean!

Lehendabiziko garagardoa amaitzen lanak izan dituen arren, gozo sartu zaio bigarrena. Konbertsazioak joera konbergentea hartu du kasik berehala, eta, arbi eta arbi-azen arteko desberdintasunak barre artean disezcionatu ostean, gai intimoek mintzatzen hartu dute hirugarrena. Saioak Inesekin bizi izandakoak kontatu dizkio: hark eten zuen harremana haurrik izan nahi ez zuelako. Miserablea. Ustela. Hiru hilabete barru erdituko da. Alizia gurasotasunaren alderik gaiztoenak jaulkitzen hasi da, baina, okerraz ohartuta, barkamena eskatu eta isildu egin da.

Goiko logeletako batetik intziri eta ulu segida bat entzun da, gizezko baten orroaz amaitu dena. Elkarri begiratu eta barrez lehertu dira. Eskaileretan behera amiltzear den garagardo botila huts bat jasotzera makurtu dira biak batera. Kontaktua sumatu duenean gelditu egin da Saioa eta iruditu zaio Aliziak ere hala egin duela. Garagardoek karga nabaritzen du. Lurruna ahotik joan-etorri azkarrean, gauean zuri, itzalian ke. Botila hutsean geratzen ziren azken tantak nola isurtzen diren behatu eta mugimendu doi batez lagunarengana biratu du apur bat aurpegia. Musu labur bat.

Alizia ikusteko gogoz joan da gosaritara eta jantokian oroitu du egunean bertan utziko zutela etxea haiek. Hesteak korapilatu zaizkio eta korapilo artean trabatu hitzak nonbait, ez baita ezer esateko gai izan goiz guztian. Denbora dezente egin du eserita, hura noiz ikusiko. Ez da ez Alizia ez haren senar edo umerik azaldu. Zentzugabekeria galanta dela ondotxo dakien arren, harekiko lotura estua sentitzen du, *engantxatu* egin da. Gaizki ulertu ez bazion, bazkalostean abiatuko ziren, eta beraz, han izan behar zuten oraindik. Deitzeko imintzioa egin du pare bat aldiz, baina botoi gorriari eman dio deia hasi eta berehala, beste eskuko hatzamar batekin ile-xerlo bat kiribiltzen duen bitartean.

Bazkalaurretik dutxa bat hartzeko gelara erretiratu denean ikusi du senarra atzeko aparkalekuan seme zaharrena- ren laguntzaz maletak auto barruan sartzen. Bart gaueko garagardo hutsen ondotik igaro dira. Egun on, Alizia!, idatzi du orduan, gelan bakarrik egonda mezua gustura jasoko duela- koan. Konektatuta dago. Dutzatik atera eta konektatuta jarraitzen duen arren, erantzunik ez duela ikusita zapuztu egin da. Hor zaude?, bidali dio. Ezer ez. Hamar minutuko tartea emango dio. Joan dira hogeit hamar minutu eta deus ez. Senarra ere bertan izango da dagoeneko. Handira jo du hordagoa: Bart gauekoa asko gustatu zait. Mugikorra ohe gainera jaurti du. Berehala atzetik bota du bere burua luze, eta, damututa, mezua ezabatu du ziztu bizian, oraindik konektatuta jarraitzen duen Aliziak irakurriko ez zuen esperantzarekin. Batzuetan hain gaude geure istorioan murgilduta, ez gara konturatzen

beste pertsona baten istorioan bigarren mailako aktoreak besterik ez garela. Edo estrak. Edo dekoratua.

Ezaguna egiten zaion jarrera obsesibo-konpultsiboa errotik eteteko mugikorra itzali du eta bere burua behartu liburu hartzera eta amaitu arte irakurtzera. Irakurtzera kastigatuta!, halaxe zigortzen zuen amak umetan. Eta iragarpen ororen aurka, horrela zaletu zen: kastigatuta eta *Los Hollisteren* konpainian. Bi egoeren antzekotasunaz ohartu denean, irribarre mikatzez ekarri du ama gogora. Dena hain gaizki egin al dut ba? galdetu zion egun hartan, isilik geratu beharrean, eman beharreko erantzuna bururatu zaio orain: Ez, ama, dena ez, irakurtzeko zaletasuna zuri esker daukat eta.

XI

Irakurtzekorik gabe jaitsi da nahiz eta afalordua urrun egon oraindik. Bizkarra luzatzeko mugimendu batzuk egin ditu ate parean, eta ingurua aztertzeko aprobe txatu. Sekuoia erraldoi baten itzalpeko eserlekuan Maxime, disimulurik gabe ari zaio keinuka liburuaren gainetik. Ez du haren jolasean segitzeko intentziorik eta beste leku batean jarri da. Ipurmasailek ohola ukitu duten unean, dar-dar egin dio patrikak: Ez idatzi gehiago, mesedez. Bitan pentsatu gabe ezabatu du Aliziaren zenbakia. Besoak eserlekuaren bizkarraldean zabaldurik, burua atzeraka erortzen utzi eta zeruan finkatu du begirada. Laino bakartiak, zaharraren biloa bezain zuriak, trinkoak. Beste etapa bati ekin nahi dio, beste hasiera bati. Berria. Horretarako utzi zuen lana. Hasiera berri batek,

ordea, benetan berria denean, krisia sortzen du. Benetako edozein aldaketak beldurra sortzen du. Beldurrik ez baduzu, ez da benetako aldaketa. Hodeietako bat irribarrez ari dela dirudi, Nitaz trufatzera etorri zara zu ere?

Soinu astun bat kolpetik. Maxime lurtean ikusi duenerako eginak zituen hiru bat metro norabide horretan. Ahoz gora dago, begiak itxita. Talio pixka bat kukicha tean eta aio pelayo!, oroitu du Saioak. Ondoan belaunikatu zaio, eta eskuakin paparra astindu. Arnasa hartzen du, esan du norbaitek. Lehertu egin da Saioa orduan. Eztanda egin du barrutik eta kanpotik. Negar-arrantzaka, zaharraren bularrean gordeta. Eta hala jarraitu du anbulantziakoak iritsi direnean ere. Lasai, neska, zure aitona ez da hilko, esan dio parean makurtu eta eskuak sorbaldetan jarri dizkion erizain gazteak. Zorabialdi bat izan eta konortea galdu du, besterik ez. Esan nahiko lioke dagoeneko begiak irekita dituen agurea ez dela bere aitona, azaldu nahiko lioke bizkarra zuzendu berri duen gizona ez dela nor bere bizitzan eta ez dakiela zergatik ari den negarrez. Baina hezur-mamizkoa baino gehiago kristal-likidozkoa sentitzen da. Ezin da mugitu. Mugitzen bada hautsi egingo da. Eta hausten bada, noizbait pertsona fresko eta duin bat gorde zuen edukiontziaaren arrasto mingarriak baino ez dira belar gainean geratuko.

Burua belaun artean bilduta geratu da belardian, bere baitatik desagertzen. Begirada apur bat goratu duenean jantokian ikusi du Maxime osasun langilez inguraturik. Tentsiometroa eta bestelako aparatuak kendu nahian dabil gizona eta iruditu zaio eskuaz belardiko punturen bat markatzen ari ote den, inork jaramonik egiten ez dion arren. Liburua.

Belarretatik hura jaso eta bizkarra guztiz zuzendu gabe sartu da jantokira zaharrari eskatzen duena entregatzeko. Ez du inoren akusazio-begiradarekin, edo oraindik okerrago, inoren aurpegiera errukiorrarekin topo egin nahi eta patiora atera da atzera.

Iluntasunean desagertzen ari dira bi kolunpioak, baita kulunkan dabilen neskatoa ere. Mantso hurbildu zaio, eta, nahikoa gerturatu denean, neskatoa ahapetik kantatzen ari den melodiaz gozatzen geratu da. Baimena eskatu dio keinu batez. Baiezkoa egin dio honek buruarekin, kantua eten gabe. Ile-motots gorria askatuta, begiak itxita, kulunkan hasi da. Aurrera, atzera. Aurrera, atzera.

Aurrera.